# Haizea Printzesa eta Sagar Gorri Miragarria



Bazen behin printzesa eder bat. Begi marroiak zituen. Ile marroi iluna zuen eta oso uhina. Zamudioko erresuma handi batean bizi zen. Oso ederra eta polita zen.

Egun batean erregea gaixotu egin zen eta gaixotasun hori sendatzeko, "Sagar Gorri Miragarria" behar zuen, eta printzesa mendira joan zen. Baina ez zuen ezer aurkitu. Biharamunean ere joan egin zen. Eta ezer ez zuen aurkitu.

Esaten zuten atso zahar jakintsu bat zegoela Uxue deitzen zena baina ez zekiten non bizi zen. Orduan Haizea printzesak esan zion bere familiari ez kezkatzeko. Joan egin zen eta egunak eta egunak pasatu zituen aurkitu arte. Atea jo zuen. Ikusi zuen atso zaharrak ia ezin zuela oinez ibili.



- Nor zara neskatxo?
- Kaixo Haizea printzesa naiz.
- Ni Uxue sorgina naiz. Zer nahi duzu? – Galdetu zion.